


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

150n. Zenbakia Epaila
Martia
1991



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



URKIJO'TAR JON ERRAMUN

(Onelan margotu eban Uzelai'k)

- EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN SORTZAILLEEN ARTEKOA
- EUSKALERRIAREN ADISKIDEEN ALKARTEKOA
- EUSKEREAREN ALDEKO LANEN BULTZAGILLEA:

ERRUSIA'KO ABERRIAK

BA-GENKIAN

Sarritan entzun izan dogu Errusia laterri aundiaren barruan aberriak egozala eta aberri orrek komunisten aldetik zapalkuntza ikaragarria izan dabela, baiña on entzun eta beste barik oztasunaz artzen genduan eta bear ba'da aberri areik ainbeste urtetako zapalkuntza gogorak il egin zituala uste izan dogu.

Aberriak, orregaitiño, ez dira ain errez ilten, auspean geratzen dan illenti-sua, atzerago edo aurrerago agertu egiten da.

GAURKO GIROA

Perestroika ren ondoren, lez askatasun apur batek argi egin dau lurralde zabal aretan eta laster biztu da barriro auspeko illentia eta ausgaiñean gar bizia agertu da.

Baiña Perestroika orren askatasuna oraindiño laburra dalako edo egin nai diran aldakuntzak bear dan baiño astiroago doazelako, abertzaletasunaren bizitasunak eroapena galdu dau eta sekulako iztilluak sortu dira, eriotzak izan arte. Abertzaleen odola an be!

Errez ulertzen da Estonia, Letonia ta Lituania dirala gogoan daukaguzan erriak, baiña badira beste aberri batzuk be lurralde areitan, zaratatsu edo erdi-isillik.

ITXAROPENA

Aberri areik, abertzaletasuna bizi daukien neurrian izan daikee itxaropena be askatasun osoa lortzeko.

Gure egoerea txarragoa dala esan lei. Arein kondairako jazokizunak oraintsuagokoak diralako edo euren denporan laterri entzutetsuagoak izan diralako edo... arei jaramon geiago egiten jake. Guk askatasun on eskatzen dogunean, ez jaku ainbeste jaramon egiten.

Itxaropenak guztiontzat argi egiten dau, baiña izar on toki batzutan dizdiratsuagoa dala dirudi.

GOGORKERIA

Gure artean diran jokabide gogorak mindu egiten gaitue eta ez da mindu barik geratzeko gauzea ta giroa izan be.

Baiña Errusia'ko laterri areitan ikusten dan gogorkena ez da emen baiño bizitasun gitxiagokoa, naizta gogorken lez ainbeste aintzat artu ez.

Konponduko al dira munduko arazo larri oneik eta orrein artean geurea be, aberri guztiak askatasunean eta aurrerapenean jarraitu dagien.

OLAZAR'tar MARTIN

IPUIN-SARIKETA

Epai-maiak egin dau bere batzarra eta EUSKERAZALEAK ALKARTEAREN IPUIN-SARIKETA'ko sariak banatu dira

1. Saria: GOIKOETXEA'tar IÑAKI
- 2n. Saria: ARRINDA'tar ANES
- 3n. Saria: BERGARETXE'tar JON JOSEBA
- 4n. Saria: ALZOLA TA BARAINKA'tar ELIXE

Ipuin sarituak urrengo zenbakietan agertuko dira.

EUSKERAZALEAK

AURRETIKOAK GOGORATZEN ETA GORATZEN

Eriotz-mina

EUSKERAZALEAK ALKARTEA bazkide argien eriotz-miñez agertzen da zenbaki onetan: Sortzaille izandako bazkide guztiz argi bi joan jakuz oraintsu: Jon Erramun Urkijo ta Jose Antonio Montiano. Eta gure alkarearen bazkide argi oneik joateak eriotz-miña itzi dau gure artean. Euren alde doa gure kristiñau-fedearen otoitza eta gure gomutapen eta goratza-re sutsua.

Sortzailleak

1968'ko urterillaren 23'an izan zan, ain garratza ta larria izan zan urte gogoangarri aren asieran.

Bilbo'ko Carlton Ostatu Nagusian batzar bat egin zan, EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ri sorpena emon eutson batzar gogoangarria. Elburua euskerea erabiltea ta indartzea zan eta batez be Bilbo urí aundira begiratzan zan orretarako. Gogoa bear zan benetan, giro aretan eta Bilbo n euskerea indartzeko ekiñaldi bat asteko. Baiña olakoxe ameslariak gara euskaldunok, eta amets guztiak betetzea lortzen ez ba'dogu be, lan ederrak eta txalogarriak egiten dira.

Ona emen an batu ziran sotzailleen izenak: Migel Anjel Astiz, Anjel Eujenio Lopez, Jesus Oleaga, Jon Erramun Urkijo, Leopoldo Zugaza eta Jose Antonio Montiano.

Ekintzak

Laster asi ziran Alkarte onen lanak, batez be Bilbo'tarrai euskerea ikasteko aukerea emotekoa eta orretarako bear ziran liburuak argitaratzekoa.

Urteak geroago, 1975 inguruan, artu gendun guk Zuzendaritza Batzordeko ardurea, sortzailleak eukazan asmoai jarraipena emoteko eta erri-euskerea indartzeko. Gure ekintza nagusiak oneik ziran: Lendik etorren irakasketa eta liburu-argitaratze lanari jarraitu eta ipuin-sariketa eratu, egutegia urtero geratuz, ZER aldizkaria argitaratu, batez be bazkideentzat.

Oraingo batzordea

Guk aurrekoen zuzia artu eta aurrera daroagun lez, ba-daukagu itxaropena jarraitzaille barriak eto -

rriko dirala ekiñaldi onei jarraitu edo barriak sortzeko.

Orretarako ba-dagoz gaur be eragozpen batzuk: Gazteak beste ardura batzutara sartuta dagozela eta ez daukela astirik olako lanak egiteko, erri-agintaritzagaz etorri dan askatasun-giroak aldi bateko eskari beroak moteldu egin dauzala, ikastetxeetan-eta euskerea irakasten dala ikusteaz euskerea bideratuta dagoala uste dabela askok, euskaldunen artean eta euskereari begira lengo batasuna zapuztu egin dala eta gaur zatituta aurkitzen garala eta abar. Ez daitezela ba larregi lasaitu eta ardurabakotu gure euskaldunak. Gaur be euskerea arrisku aundian dago.

Urte larri baten

1968'an olako alkarte bat sortzeko baldintza batzuk bear ziran: Ekintzaille jator batzuk orduan arris-kugarri be ba-zan olako ekintza-ta, laguntzailleak ugari orduan ez egoalako erakundeen ezelako laguntzarik, sortzea bera egiteko lege-gizonak eta politikako gizon zurrak... Eta gero, ekintzak bideratzeko, orduan ain urri egozan idazleak, irakasleak, irakastetxe bat eta abar.

Orretarako izan ziran oztopoak egokiro azpiratu ebezan gure gizonak. Orrean artean gaur, joan jakuzan Urkijo ta Montiano jaunak gogoratu bear doguz. Alkarteak aurrera egin eban.

Gaurko giroa

Ba-daukaguz ba, errazoiak joan jakuzanak eta oraindiño bizi diranak goratzeko eta euren asmoak aurrera aterateko laguntza eskatzen dogu.

Gaurko giro larri onetan EUSKERAZALEAK, beste erakunde batzuk lagun dauzala, EUSKARAZAINTZA ERRI-AKADEMIA sortu dau, onetan Kardaberaz Bazkuna be lankide dala, eta guztiak alkartuta diardue errikoa dan euskerea indartzen.

Dana izan daitela euskerearen onerako eta oiñarrian dagoan abertzaletasuna indartzeko, orrelan gure euskalerrria sendotu daiten eta Araudia ta Jaurlaritza bide dirala, jabetza osora eldu.

ON JOSE MARIA

ARIZMENDI-ARRIETA

Idazlan au eta ondorengo batzuk izango dira, BARRI on batzuk azalduteko, idazburuan ipiñi doten Jaunaren alde, berak lan izugarria ta aintzagarria egin ebalako, Gipuzkoako-errialdean, basterralde baten, 1941 así ta bere Betikotasunera joan arte.

LAN etengabea ta zorragarria, bere buruko AMETSAK bete arte. Ñun izan zan iraulketa orí edo aldaketa ori?

Iraulketa ori, baina ONERA, ez txarrera, egin eban LENIZ'ko Aranean. Aran ori, oraintzuko ogeitamar urte onetan zear guztiz aldatuta agertzen da. Sinistu eziñekoa da, leen ikusi ta orain ikusi. Nire ustez, betiko ez bada be, beintzat oraín, jente guztia gelditzen da arrituta, an izan dan ONBIDEA, alde guztietan, bai notiñen modu edo ikustean, bai lanean ala-ta-be, ta iru edo lau erríetan egin dan GORAKADAÑ.

Erri oneik dira: Mondragon edo Arrasate, Aretxabaleta, ta Eskoriaza. On Jose Maria'k ekarri ebazan gogapen eta AMETSAK, basterralde orretan beste buru batzuetan sartu arte alegindu zan ezin bestean.

Ta egia da, LUR ederretan jausi zan AZI ori. Lur ori gertatuta egoan tokian, LUR FIAGARRIAN jausi zalako.

Idaz-buruak zeintzuk ízango diran.

Lenengo aztertuko dot bere jaio-etxea, sendia, zelako okerra edo istripua euki eban írugarren urtean.

Geroago lenengo ikasketak jaiotokian, ze maixukin topatu zen, ze zailtasun euki eban: dana ikasi bear erderaz. Lenengoz atzeraka aundia izan zan, baiña bere borondateak, naita zaila izan, dana aldendu eban. Amabi urte beteta joan zan APAIZ-tegira edo Apaíz etxera.

Gazteizko Apaíz-etxe barri-barrian, nolako zelako Maixuak euki ebazan, ta onein ERAGIPENA berizkeran.

Gero eldu yakon, orduko gazte guztieí bezela, gure anaiarteko guda zikiña, ta orduan aurkitu arrisku izugarrian, alde batera edo Franko'ren aldera gelditu zanean.

ITZ bat ezan bearrean, beste bat esan baeban illarazí edo garbituko ei eben tíroka. Orduan giroa olakoa

zan, baiña aldi onean berba egin eben ta salbau zan bestaldera joateaz.

Guda denboran talde bietan egon zan ta ALBOKO lanetan ta ganera alboko gudariakin. Zergaitik ori? Begi batetik ez ebalako ikusten, guztiz itxua eukan begí bat. Arríkada batek, iru urte ebazala, galdu egin eutson.

Baiña denbora onean, bere arremanak jende edo gazte guztiekin ízan ebazan, ta oneikín bai onakin ta bai okerrakin, ikastetxean baiño geiago IKASI ebaladiño berak, Tratu au izan ei zan ikaskai etxe onenetáikoa. Ikasgabeko gaztea, edozein aldera joaten da eta ber ZANTZUA edo MARRA betirako izten dau.

Orregaitik bere oldozmenetan diño: GIZONA LANAK AUNDITU EDO URENDU EGITEN DAUALA TA GIZARTEAK ABERETU EDO ASOTU.

Ta oríxe jazoten da askotan gazteen arteko ARREMANETAN, ala-ta-be EZI bakoak ba'dira.

Bere ikasketak amaitu ebazanean mutíl orren GOGO izan zan LOBAINARA joatea, geiago ikasten edo jakintza osotuten.

Baiña Gazteizko Gotzainak esan ei eutson: ZU ARRASATERA, ta KITU. Erri orretara eldu ei zan 1941'eko iraillean, FALDETXO bat eskuetan ebaladi.

Onelan, azalduko dogu, pizkaka-pizkaka bere Apiztegiko Maixu Lekuona, euskalzale izugarria, Jose Miguel Barandiarán Antropologoa eta Agustin Zubikarai. Onek, diño, asko lagundu eutsoala ABAD-DEIA aurrera eroaten.

Arrasateko asiera oso zailla izan ei zan alde guztietatik, bai erriaz ta bai bere apaiz-lagunakin.

Geienak izan zíran ASMO BERRIZALE izan zalako, ta geienetan abadeetxetik kanpora ibiltzen zalako. Ori ez eben ikusten ondo bere lagunak be.

Apurka-apurka jentea oituratu zan gure abade berria ikusten etxean ta kalean, bere zerigiñak ondo betetan ebazala.

Gura eban lanean bai eleízan ta bai gazteen artean ondo FINKATU ta gogortu zanean, ordutik aurrera, gauzak edo zeregiñak así zíran beste-aldera bíurtzen.

Gauzak ondo joiazanean, aize txopan edo esku-
aldera, orduan etorri jaion poza, eta alaitasunean bizi
zan.

Emen gura neuke GOGORAPEN LIBURUTIK,
oso sakonak ta interesgarriak dirakako, ondorengo
batzuk atera, guztion onerako izateko Liburu orren
gaiak oso interesgarriak ta MAMINTSUAK dira.

Denboraz ta Jainkoaren laguntzaz, LAN eder ta
zintzoari astinaldi bat emongo jako.

On Jose Maria'ren AMESIK beroena ta zakonena
au izan zan: GIZONA, GIZON EGITEA.

Gizonaren BIOTZA izan daitela Jainkoarentzat ta
bere buru azkarra ta argia ta eskuak lan trebea egi-
teko.

Gizonaren ABERASTASUNAK lanetik etorri
bear dauala ta guztion aberastazuna be bai. Berak
SORTU ebazan industriak aurrera jarraitzeko naita

KONPETITIBOAK izan, aurrerapen aundia egingo
dabe gizon jakitunak eta trebeak.

Lenengo gura eban gaztedi ikasikoak, trebeak la-
nean, ta gero lan on IRAUNKORRA izan daiten Di-
ru-etxe edo KUTXA bat sotutea.

Auxe azaldu edo manifestau ei eban bein batzar
baten. Ta geienek barrezka asi ei ziran. Ta batek
itandu ei eutson: Jauna, nundik atarako dogu ba di-
rua, gu txiroak izan da?

JARRAIAN, JOSE MARIEN ERANTZUNA:
EUSKAL ERRIAN ARRIPETATIK IRTENGO
DAU DIRUAK. Danak edo geienak MARMARKA
asi ei ziran ta barrezka be bai.

Azkenean nok errazoia? Gauza edo gai guztiok
ikusiko doguz bere sasoa.

ETXEBERRI'tar ISIDORO'k



MEZEA SAN ANTON PARROKIAN

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren Zuzendaritza Batzordeak, 1991'ko epaillaren 7'an egin-
dako batzarrean auxe erabagi dau: Datorren illearen, jorraillaren zazpian Pazko igandetik urrengoa
dan igandean eta San Anton'go parrokian 12'etan mezea eskiñi Jon Erramun Urkijo'ren eta Jose An-
tonio Montiano'ren aide.

Biak gure Alkartearen sortzailleen taldekoak izan diran ezkerok, esker onez eginten dogu ospaki-
zun au eta Alkarkide guztiai egiten dautsegu dei egun orretan mezara etorri daitezana.

EUSKERAZALEAK

URKIJO TA OLANO'tar JON ERRAMUN



Miguel Angel Astiz Eugenio Lopez Jesus Oleaga Juan R. Urquijo Leopoldo Zugaza Jose Antonio Montiano

Bizkaitarra ta ikaslea

Urkijo ta Olano'tar Jon Erramun Begoña'n jaio zan. Begoña Bilbao'gaz bat egin bako eleizaldea zanean. Beraz, Foruak ebazanean. Eta bere bizkaitartasun sakona eta Euskalerrriaren maitasuna an beragatatu ebazan, bere zendiaren barruan, oitura jator on eben eta.

Deustu'n egin ebazan Legeetako baimendun izateko ikasketak eta Merkataritzarako Goi-Maillako Eskolara be joan zan. Argitalpen eta irarizko lanen arloaz arduratu zan. Bere egiteko guztien gaiñertik Urkijo'k euskal kulturearen aide egin eban lana azpimarratu behar da. Bibliografiatzko azterpen zeatzaren bitartez ikerketa baliagarriak egin ebazan, itzalezko gaitasuna alortuz.

Euskalerrriko adiskideen alkartean

Euskalerrriko adiskideen alkarteak urteetan zear bere lendakari izan zanari omenaldia egin gura dau-tso.

Garrantzi aundiko urte bitan, 1975/1977, alkartearen Zuzendari izan zan. Aldi-une on erdibidezko garai korapillotsua izan zan.

Laterri maillan bere arlokoen artean osperik geien dauan eta zarrena dan erakundea berbiztu eta indartzeko egin eban lan kementsu ta gogoz.

Omen on egiteko argitaratu da "Textos" idazpuru-a daroan liburua.

Omenezko liburuaren gaiak

Mota ezberdiñetako lanak eta gaiak aukeratu dira liburu on osotzeko, baiña lan guztien barrenean argi ikusten da lurrari eta jenteari begira berak dauan maitasuna eta euskerearen geroko bizitzeari buruzko ar-durea.

1990'ean irarkolatik urtendako liburu onek, 317 orrialdetan lan irakurgarri asko dakaz eta irudiakaz ondo apainduta.

Euskerazaleak Alkartean

Ez doguz aitzu bear berak egindako beste lan garrantzitsu batzuk.

Euskerazaleak Euskerea erabiltea indartzeko Al-kartea sortu zanean, an egoan Jon Erramun Urkijo sortzailleen artean. Sera izan zan aldi bateko lendakari be, arlo oneitarako ezelako laguntzarik artzen ez zan aldi aretan.

Euskerazaleak Alkarteak itzaltasunik aundienaz eta maitasunik beroenaz gogoratzen dau Urkijo'tar Jon Erramun.

"TEXTOS" Liburutik artuta
Olazar'tar Martin'ek eratua.

ARAZOAK

egunerako atzeratzea erabagi eben, ea epe orretan itzultzalaren bat agertzen zan. Gerotxuago ni izan nintzan deitua Sullivan'egaz berba aldi bat egin eta bere autortza bear zan lez antolatzeke. Laster alkartu genduzan gure gogoak eta bertan erabagi genduan zein zan jarraitu bear zan bidea.

El ziran asko egin jakuzan itaunak eta biok, ain ondo alkarturik, laster adi-erazi gendun gizon areik, Sullivan SEVEN SEAS SPRAY'ko itxasontziko itxastar bat zala eta ontzi ori Santoña'ra etorri zala, Euzko Gudariak Frantzi'ko kai-alderen batera eroateko. Santoña'ko ur-kolko barruan eta kaietatik ain urrun egon ziren azkeru, euren ontsí-naguzi edo kapitana 'ri baimena eskatu eta lurreratu zirela bera ta bere lagun bi. Lurreratu orduko, gudarí talde bategaz alkartu eta ardaue edaten asi ziran; berak larregi edan eban eta konturatu zanerako, espetxean aurkitu zan gudariekaz batera.

Bere ontziko lagunak ez ziran beragaz agertu eta, bear ba da, ontziratu egingo ziren bera espetxeratua izan baño len. Bere sakelean aurkitu jakon izkillu edo pistolea, gudari batek emondakoa zan ba, uretara jaurti baño len berak eskatu eutson, gudako gomutaki edo souvenir bat lez gordetzeko.

Ez dodanlez siñisten gizonen arteko asko eta askorengan, nire eztabaidak dodaz, Sullivan'en arazoan izango ete zan berarenganako erruki txikienik. Ia, ia ziur nago berak eta nik sartu genduan GOL A izan zala beretzat egín zan "mirari" bakarra.

Bizí garen Ludi zoro onetan, bakaizkeri, gogorkeri eta gorroto lar-egi darabilgu eta orrexek diñost ziur nabillela Mundua'ren ikusmen illuna ain argi ikusten dodalako ba, gizon zoro lar-egi dabil gure inguruetan aske ta zoriontsu, euren eginkizunak aiñ errukior ez ba'dira be. ZENBAT GOGORKERI EGIN DIRAN POLITIKOEN ARTEAN EUREN AMORRUA ERAKUTSIZ. LOTZAGARRI, GOIBEL ETA MINGARRI, BAÑA, ZORITXARREZ, EGI ASTUÑ AS-TUNAK.

Egia maite dauen edozeiñek bere inguruetara be giratzen ba'dau, oso argi ikusiko dau ník emen esaten

dodana egi utsa dala ba, barri onek edonoz eta edonon jazoten dira gaurko egunetan.

On Pablo Castellanos'ek oso argi esan eban: BEARRREZKOAK ETA APALAK GAREN ARTEAN, EMEN, OR EDO AN ERABILI, AZPIKOTZAT ARTU ETA ODOLA EDATEN DAUSKUE ETA BATZUTAN TXALOTU, GORATU ETA GOIMAILAKO TOKIETAN BE IPINTEN GAITUE; baña, IÑOZ JAUNTXUEN ESANAK EZTABAIDATU EDO EZEZTZEKO BIDERIK ARTZEN BA'DOGU, ORDUAN EZ DAGO ERRUKIRIK ETA LEN GORA ALTZA GAITUEN LAGUNAK (?) IZANGO DIRA GURE IZENA LOITU ETA GURE AURKAKO AMORRURIK ANDIENA ERAKUTSIKO DABENAK. Askotan euren zorotasun andienean sarturik ez dira gelditzen zu ondartzeko bidean jarri arte... eurak egíndako loikeririk andienak zure lepoan jarriz.

Orregaitik oso gatx da niretzat erri andien ondasunetan siñistea. Erri txiki asko daukiez euren menpean azpiratuta eta euren zuzendarien buru gogorak ez dabe iñoren eskubiderik ezagutu gura edo ontzat artu nai. Orrexegaitik dabiltz ganera, euren irriparre ta berba koipetsuak erabilliz, guk, euren eritxiz, egin bear geunkena irakatsí guraz. Gure aurkako diren politikarí oneik gure irakasletzat sarturik or dabiltz gu mutil okerrak, eskola bakoak eta atzeratuak garala esaten eta onek esan gura dau... GURE ARAZOAK, GURETZAT, ONDO DOAZELA. Ortan ziur egon behar dogu ba, ez dago eztabaidatu bearrík.

Kontuz ibilli bear dogun ordua da, gure esandako aurkako politikoeke: "ZELAKO MUTIL ONAK BIURTU ZARIEN" DIÑOSKUENEAN. Orduan, begiko, jakintsu eta aurreratuak biurtu gareala ta koipekeri lar-egi erakusten dauskuenean, argi ikusten dogu, gauzak ez doazela, guretzat, joan bearko liran lez.

Ez dogu gure lepoetan xartakotxurik bear; bear doguna da gizontasun, zintzotasuna eta legeak ontzat artuak izan daitezela. Dan-danontzat bardín.

KEPA

LEKU BATZUTAN LAR, BESTE BATZUTAN GITXI-EGI

Ezbardintasun andiegiak asmatzen dira Mundu'ko biztanleen artean: baltzak eta zuriak, aberatzak eta txiroak, luze ta txikiak, lodi eta argalak, arro eta apalak, Euzko'tar eta Frantzez edo Espania'rrak, bear lar eta gitxiegi daukeenak eta abar eta abar...

Zori txarrez auxe ikusten dogu askotan eta aldi ain luze ez dan baten, DEIA egunkarian auxe entzun bear neban: "LUZEEGIA DALA USTE DOT ETA, BEAR BADA, EZINGO DOGU ARGITARATU ZUK DAKARZUN ESKUTITZ AU, "CARTAS AL DIRECTOR" ATALEAN. Nire ustez, bizibidetzat izparlari direnengandik idazlan larregi dabela esan gura eben eta guretzat, doan barri-emole izan gura doguentzat, ez dagola lekurik. Enago ziur baña, nik orixe ulertu neban.

Beste alde batetik, ZER izpar-illerokoan irakurri neban: "BIZKAIERAZKO EUZKERAN IDATZITA POZIK ARTUKO GEUNKEZ LANTXUREN BATZUK".

Au ikusirik, ba noa DEIA'ra gazteleraz bialdu neban luzeegi eta orrexegaitik argitaratu eziñezko izan zan idazlan a euzkeratu, ZER'era bialdu eta ea argitaratzen deben.

Olantxe iñoan nire idazlan, ain luze, arek:

"Cartas al Director" atalean, otsailla'ren 9gneko DEIA'n eta 22gn. orrialdean irakurri neban R. Armandegi'k izenpetuta, oso begiko izan jatan idazlan bat. Ni beti izan naz egi-zalea eta nire ustez kondaira idatzi bear danean, emen eta an egí uts utsak batu eta guzur barik idatzi bear leitezke Orrexegaitik ba noa ni be argi apur bat geiago R. Armandegi ren lanari gainetuten.

Armandegi'k oso ondo iñoan lez, España'n izan zan anaiarteko guda-aldian, Santoña'n eta gugaz batera atxilotua izan zan Bilbo'ra gudarien ondoan eta Euzkadi'ren alde burrukatzen etorri zan Iralandar gazte bat. Oso ondo ekian gazte arek Euzkadi'k bere azkatasuna lortu gura ebala eta orretan, berak be, zintzo-zintzo "jokatu" eban. Nire buruak utsík egiten ezpa daust, Irlandar gazte a M.A.I. Irrintzi gudarien

taldean lerroraturik egoala uste dot. Txile-Euzkotar eta beti gazte dan Gabino de Artolozaga izan zan gudari-saila'ren burua. Irlandar gaztea, jarraitzen dau, Armandegi'k Bilbo'ra etorri eta edozein biozdun gudari bat lez burrukatu ondoren, Frantzi aldera jaurtia izan zan bere jazokuntza oso bakarrezkoa izan zalako eta batez be bere erritarrak Franko'ren aldeko ziralak eta eurentzat España'ko gudea gurutz-gudaldi bat lez eukelako.

Parkatu baña ni enago ados Franko'ren aldekoak Irlandar onen arazoan eta gu guztion zeregiñetan erruki txikiena erakutsi ebenik. Zori txarrez, ur-urru-tik bizi izan neban gure epailletzat jarrí ziren sai antzeko gizontxu arek ezarri edo leporatu euskuen errukigarriko bizitza. A. bai zala izu edo ikara-aldia. Ala ez? Gizon arein artean ez egoan iñorentzat iñondiko erruki edo on-zaletasun txikienik be. Ganera, ainbat azken urteetan ikasi dot, zoritxarrez, gure inguruetan gizon on-zale baño gosezto edo tripazai geiago bizi dala. Santoña'n eta oso pozik iruntziko geituen sai antzeko gizon talde aien tartean, nik daki-danetik, ez zan iñor agertzen iñoren alde gogo ona erakusteko borondateagaz. Eta Sullivan gixajoa'ri ziur-ziur jazoko jakon KONSOMOL'eko Ruso'tar itxas gizon batzuri jazo jakena: PUERTO DE SANTA MARIA'ko zar, loi eta ikaragarriko espetxean gugaz batera, ainbat sorrí il eta egun luze ta illun asko igarot-

tea. Hitler eta Stalin'ek euren arteko itunpena izenpetu ebenean euren auzpetako erririk geienak erdibitu eta Alemania eta Rusia'ren menpean sartu ebazan. Konsomol'eko itxas gizon arek be orduan izan ziren euren errietara bialduak. Asko poztu nintzan euren azken zoriagaz, baña ordurarte gixajo arei jazo jakena, lotzagarri eta oso mingarria izan zan. Baña, zori txarrez, egía, negar egítekoa eta kondairan izki andiekaz idaztekoa...

Eta Sullivan'i bere agermen edo autormena egiteko ordua eldu jakonean, ez dakit zelan baña bere epailletzat agertu zirenei buruan sartu eutsoen berak ez ekiela gazteleraz berbarik egiten edo ez ebala ele orí ulertzen. Orduan, Sullivan'en arazoa bi edo iru

URIARTE TA IZA'tar

KEPA AITA



Uriarte ta iza'tar Kepa aita, frantzisko'tar euskaldun abertzalea, gudarien kapellau izana, lur santutik igon dau aitaren etxera, betiko Jerusalem'era.

Lur Santuan

Urte batzuk dirala, 1980n. urtean, Lur Santura oster bat egiteko aukerea izan neban. Ara joateko erabagia artu eta laster esan eusten an egozan Frantziskotar euskaldunak agurtzeko, aitzu barik, batez be Artaraz aita eta Uriarte aita ikertzeko bidea eskiñi eusten eta nik bide ori artu neban. Orduan Arratia'gaz lotura berezia neukan euki be, bertan Zeanuri erri maitagarrian amar urte igaro ondoren, neure biotza-
ren zati on bat neukalako.

Esan eta egin. Naizta gure iker-aldiak astiz ondo neurtuak izan, Belen'era eldu gintzazanean, antxe aurkitu neban Aita Kepa Uriarte. Segundo batzuk baiño ez nebazan izan beragaz berba egiteko, *baiña* une baten auxe esan eustan: Itxaron egístazu apur baten. Bera barrura joan eta an zerbait artu eta barrero etorri zan. Nire eskuetan agurtzaren garauak ezarri ondoren esan eustan: Artu egizu au neure gomutagarritzat. Orio-mendiko landaren garauetatik artutako azurrakaz egindakoa da. "Eskerrik beroenak emon ondoren, agurtu neban biotzez Uriarte Lekaide eus-

kalduna eta ez dot ezer geiago jakin, bere eriotzea dala-ta Uberuaga'tar Ander aitak DEIA'n idatzi dauan idazkia irakurri arte.

Ezin itzi nik ezelan be aldizkari onetan bere gomutaz zerbait idaztea eta nire adiskide dan Uberuaga'tar Ander aitari neure esker ona agertu barik.

Jakituna ta laguntzaillea

Ander Aitak misilen zaratea gogoratzen dausku. Izan be Israel'en aspaldikoa dogu guda-giroa, orduan be beti inguratzen ginduezan guda-burdiak. Orain, Irak'eko guda amaitu dan ezker, laster eratuko dala uste dogu bake-ekintza eta ondoren ona opa dautsagu ekintza orreri, Jaunaren Erriak bizitza barria izan dagan eta an diran Kristo'ren gomutaki bizi ta beroen iraupen ziurra ta ikertzeko era ona izan dagien.

Uriarte aitak "buru otza ta biotz beroa" eukazala diño Ander'ek, eta nik asko ezagutu ez arren, olako zerbait geratu zan berari buruz nire barruan be. Ara doazen bidelarai laguntzen 52 urte igaroteko, biotz beroa bear da, benetan.

Aita Uriarte'k ez ei eban bere euskerea galdu eta gaiñera gaztelera, italiera, frantzer, anglander, doítxera ta eberkera ikasi ei ebazan eta orrez gaiñera Lur Santuan egin diran arkeologjiko billaketa lanetan eguneratuta bizi Euskalerrian jazoten diranen barriak be egunero artzen dauzala.

Mundu guztian

Zenbat euskaldun munduko alde guztietan, batzuk fedearen laguntzan, beste batzuk lanean, beste batzuk errigintzan! Frutua ugari emoten eta zabal-tzen dau gure erriak mundu osoan. Gauza pozgarria guztiontzat.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

1990'eko EKINTZAK

Gabon Jaun-andreok:

Ona einen gaur, joandako urtean "EUSKERAZALEAK" erakundeak egindako ekintzen azalpena.

Euskal ikastaroa

Erakunde au sortu zanetiko oiturari jarraituz, igaz be 1990-1991 ikastaroa euskeraz asi genduan. Azken aldiotan oikoa danez, ikasleen izen-emotea ez da izan geuk gura izango genduan beste ugaria, baiña leku guztietan kupuru-urritze on ikusirik, ontzat emoten doguz arlo onetan jarri daguzan aalegiñak gure euskerea zabaltzeko, eta Bizkai'ko euskerea dagokion maillan ipinteko.

Euskal astea bizkaieraz

Oikoa dan ezkerro, igaz be Eskolapiotarren Bilbao'ko ikastetxean, Azilla'ren azken-astean atondu genduan aste au urrengo egitamuaren arauz:

26'gnean: Gure kondairaren irakatsiak (Oñatibia'tar Manu'k)
27'gnean: Baseleizak Bizkaia'n (Zubikarai'tar Augustiñ'ek)
28'gnean: Euskaldunak eta balea (Arrinda'tar Anes'ek)
29'gnean: Abadeak eta elertia (Onaindia'tar Santi'k)
30'gnean: Kofradiak (Olazar'tar Martiñ'ek)

Zortziretan ospatu ziran itzaldiak, eta azkenean gai bakoxtari buruz, entzuleen artean alkarrizketa entzungarriak izan ziran.

Itzaldi orreik, gure aldizkarian "ZER" en argitaratzen asi dira, eta jarrituko dabe danak emon arte.

Gaurko eretia ustiatuz, agirian ipiñi gura dautset gure eskerron bizia, Eskolapiotarra, ikastetxea gure aukeran ipinteagaitik dalako Euskal astea ospatu zeiten. Eskerrikasko bene-benetan.

Ipuin-sariketa

Igaz be, ezin ospatu barik itzi aspaldiko sariketa au, idazleak ugaritzeko gure irakurleen artean, ia ekiñaren-ekiñez bear dogun idazteko zaletasuna sortzen dan.

Lau sari izan dira, eta oneitxek alegia: 1'goa 40.000; 2'gna 30.000; 3'gna 20.000, eta 4'gna 10.000 laurlekokoa. "ZER" aldizkarian argitaratu doguz irabazleen izenak eta lanak.

Egutegia

Onezkero eskuetan izango dozue 1991'ko egutegia. Urtero argitaratzen dan euskal egutegia, oi lez erakunde onek

lanak atondu eta Bilbao-Bizkaia Aurrezki Kutxak argitaratu dau. Oraindiño artu ez dozuenok, eskatu dalako egutegia edozein Aurrezki Kutxatan.

Beti lez, Olazar'tar Martin izan dogu lanen alkartzai-ilea.

Durango'ko liburu azoka

Urtero ospatzen dan azoka onetan, "EUSKERAZAIN-TZA"—"EUSKERAZALEAK" tartekoak izan gara Gabonilla'ren asieran. Polito saldu dira gure liburuak, kontuan arturik batez be, euskeraz irakurle gitxi dala. Esan bear dogu, Zubikarai'ren liburuak arrakasta andia izan dabela. Aurten be azoka orretara joateko asmotan gara.

"ZER" aldizkaria

Ona emen poza dakarkigun gure illeroko maitia. Eta barrero be esango dot beti autortu bear dana aldizkari oneri buruz. Euskal erakundeek gure bizkaiera zapusten dabenean, bizi izateko eskubidea merezi ez bai'leuan, eta Bizkai'ko seme-alabak euren ez dan euskerea indarrez ikasi ta erabilli bear dabenean, ez dautsagu uko egingo lurralde onetako euskerea erabilteko eskubideari.

Gure artean ekintzarik kutunentzat dogu aldizkari oneri eustea, bizkaieraz argitaratzen dan aldizkari bakarra da-ta. Eta iñoren abotsa gure bizkaieraren aide entzuten ez bada be, jarraituko dagu bidegabekeri ta itsukeri on agirian salatuz, eta biderik onena danlez illero-illero Bizkaieraren euskerea argitaratu daiten aaleginduz.

Ainbat eta ainbat euskaldun jatorreri eskatzen dautsat emendik, euren idazlanak bialtzeko.

Laguntzak

Asmorik onenak izanda be, ez litzakez ezertarako izango dim barik. Augaitik ba, bazkide guztiai eskatzen dautsegu urteko diru-saria bialdu dagiskueta, oiko bideak erabilliz.

Ezin aipatzeke itzi emen, Bizkai'ko Foru Aldundiaren diru-laguntza. Izan be, zeozer egiteko gai ba'gara neurri andi baten ari zor dautsagu; bioakio ba gure eskerronaren autorpen agiria, eta aurten be izango al dogu oiko laguntza!

Badira bazkide batzuk diruz esku-zabal laguntzen dautsuenak be, eta Batzorde onen ozenean eskerrikasko biotzez.

Besterik ez.

ZIBIRI'tar IÑAKI'k

Juan Ramón URKIJO OLANO BE, JOAN JAKU

Sarritan lotan eta guzurrezko bizitza baten sarturik ibiltzen garenean, zenbat amets egiten dogun gizonezkoen artean, baña, itzartu edo zentzunak barriz artzen gaituenean, laster konturatzen gara zelako Ludían bizi garen eta, orduan bai, oso argi ikusten doguz gure inguruetan jazoten diren eginkizunak.

Izango dira bear bada ogeta bost urtetik gora, ba Franco'ren nausitzar edo gogorkeri aldietan izan zan, gure Euzkerea ain zapaldurik egoanean, EUZKERA-ZALE ziren gizon batzuk alkartu eta gure ele edo izkuntzaren alde lan egiteko zin-egin abela.

Gogoan dodaz ondiño gizon aien arteko izen geienak: Josu OLEAGA, José A. MONTIANO, Adrián ZELAIA, Miguel Angel AZTIZ eta euren arteko zana Juan Ramón URKIJO OLANO jaun goragarria.

Ni enaz iñor URKIJO jauna lako gizon ospetsu batek irabazi eta merezi daun goratarre bat egiteko, baña, nire ^{txiki}tasunean bada be, nire eskubideak dodazela uste dot beraren gan ikusi nebazan arazo batzuk argitaratzeko.

BERA ZAÑ BIOTZ APAL-APALDUN GIZOÑ BAT; BERE EZPAÑETAÑ BETI ERAKUSTEN EBAÑ IRRI-BARRE DOÑTSU BAT; IÑOZ BE ENEBAÑ EÑTZUN BERE ABOTIK URTEÑDA BERBA LOI EDO "TAKO-RIK"; BERE ÑORTASUNA ÑEURTZEKO, NIRE USTEZ, EZ DA EZAGUTZEN ONDIÑO BEAR LEITEKEN ÑURKIÑIK, AIÑ AÑDI-AÑDIA ZAN BERA.. ETA ZENBAT ETA ZENBAT MAITE EBAZAN GURE ERRIA ETA EUZKERE! EZAN IZANGO, BEAR BADA, ABERTZALE ALDERDIETAÑ SARTU EDO KIDETUTEKO (ni enintzan ain sakon sartu bere barneko arazoetan) BAÑA BERE EUZKO ZALETASUNA, EDONONDIK IKUSTEN JAKON.

Aldi aretan Abertzale asko agertzen ezpazan be, euzkozaleren batzuk agertu ziran eta, euri ezker, EUZKERAZALEAK taldea legebideetan jarri zan. Eta, abertzale batzuen laguntzagaz (on Karmelo Etxenagusia, Makua, Abeletxe, Izaola, Arrieta, Peña, Zugaza, Berrojalbiz, Elgezabal, Munitxa, Alkorta, Malaxetxebarria, Goti, Arandia, Egurrola eta abar (parkatu eiztazue izen batzuk aitzu jatazalako) Bilbo, Vda. de Epalza kalean asi giñan ikastaro batzuk emoten eta eundik gorako oarkari edo "monitor" urten ziran euzkerazko ikastaroak emoten asteko, neurri naiko onekoak zirenak.

Gerotxuago ainbat alkartu zan EUZKERAZALEAK taldearen barnean eta guztien artean batzorde barri bat autatu ondoren, alegiñak egin ziren Bizkai'ko agintarien artean erri-

-laguntzaren eske, baña zoritxarrez, EUSKERAZALEAK'tik urteten ziren abotsak, eziran ondo edo gogoz entzuten eta orrexegaitik talde onen bizitza estu ta larria izan da eta da orain be, diru aldetik begiratzen jakonean... Ori alan izan arren, Colon de Larreategi kalean, EUZKERAZALEAK taldearen etxean, millaka ikaslek egin dabez euren lenengo ikasketak Euzkera ikasteko asmoz.

Gerotxuago beste talde batzuk be agertu ziren eta, onek bai, onek iñon diren diru-laguntza andiak izan ebezan gure Bizkai eta Euskadi'ko buruzagi edo agintariak bitarteko ziralala.

Ortik zear dabil ainbat Bizkai'tar gizon ospetsu eta andizat doguzenak baña, ezatik ba on Juan Ramón'ek beste lan egin ete daben Bizkaia, Euzkadi eta Bizkai'ko euzkerearen alde.

Izan dira bai Euzkadi'n ainbat gizon ospetsu euzkerearen aldeko lan andiak egin dabezenak eta euren arteko bat, zalan-tza barik, Koldo MITXELENA izan zan. Euzkera batuaren aldeko bultzagille sendoenatariko bat izan zan arren, bere azken aldietan argi jakin arazi eban euzkalkiak lantzen azi bear zala euzkerea aurrera atara gura ba zan. Ortan beingoan ekiten ez ba dogu, Euzkerearen eriotza laster eta pozik norbaitek ospatuko dau. Orain be esan, idatzi eta entzuten dira noizean bein, Mitxelena'k esandakoen antzeko berbak, baña, non asmatu eta ikusi geinke Bizkai'ko euzka kiaren alde ezer egiten dan tokirik?

Euzkerea benetan maite dogunok, ortxe ikusten dogu oraingo aldietan akats eta uts-unerik andiena. Ñire ustez, Bizkaia'n eta Bizkai'ko erriarenak diren dirutzak or zabaltzen dira Bizkai'ko euzkerea ito-bearrean dabilten batzuen artean. Eta zuk, on Juan Ramón eta zure len esandako aiiñ aipagarri diren adizkideen artean, Bizkai'ko euzkerea zaindu eta zabaltzeko antolatu zenduen EUSKERAZALEAK alkartasuna, or dabil beti txikiska eta txiroak dabilizan lez emen eta or atek jo eta diru apur baten eske. Batzuk erantzuten dabe baña, zoritxarrez, oso gitxik eta ganera ezin da askorik batu... LOTZAGARRIA, BAÑA EGI GORDIÑ-GORDIÑA.

Euskeraren egoera larri, illun eta neketsu au garaitzeko ainbat ariñen alegiñak egiten ez ba dira, euzkal erriak, noizbait, epaituko gaitu eta lotzagarri izango da norberaren izena errudunen artean ikustea.

Ziur nago Urkijo jauna, zulako gizon batzuk izan ba genduzan gure agintarien artean, gure izkuntzaren atorkizuna sendo ta indartsuago ikusiko gendukela.

Gero arte Urkijo jaun maite ori, ez zaitugu aitzuko.

KEPA

MARINO LEJARRETA

TXIRRINDULARIA

Gure mendiak eta ibarrak
itxaropenez betiak,
bizitz ederrez ta osasunez
agertzen dira jantziak;
zenbat alditan ikusi dozuz
gure lur ta arkaitz aundiak,
egitura ta sendotasunez
argituz bizitz bidiak.

Dana da eder, oro da sendo,
Anbotoko aitz zuria,
mendi magalak eta ibarrak
itzez azaltzen loria;
euskaldun lurra, izadi oro,
deika zeunkan adoria,
zer egin neike errí onetan
egin zendun galderia.

Era onetan goratu dozu
zure odolez endia,
Luz de Ardiden izango dozu
bizitzako eguzkia;
oroz goitikan zuurtasunez
arritu dozu jentia,
berez, zentzundun jakatu dozu
bideak zear egia.

Lur bitartean bídeak ziran
zuri deika barrenera
Marino, bildurrik barik
gure zear babesera;
gure erria goratu daigun
albilidade erara,
ta zuk, leialki, onartu zendun
abots onaren gisara.

Geroztik, gogoz, jorratu dozuz
ibar, aldatz ta gallurrak,
zuri begira, miñez, itzírík
Euskalerriko bazterrak;
erri onetan eratu zíñan
buru, biótz ta azurrak,
gizontasuna eta zentzuna
izanik doai jatorrak.

Lejarreta'tar Marino Jauna

Abegi onez artu egizuz euzko anaiaren bertsoak.
Erbestetarrak ez zaitue, ez aiatu, ez aipatu zure egi-
ñen erara. Baiña Euskalerria zugaz bat eginik ikusi
dot egunerik egunera.

Nuntarra zaran, argí, geratu da, eusko aritza legez
sendo ta zindoa. Bizikleta garaitza eder ta pozgarria
da, baiña biderik bide euzkotar gizontasuna idatzíta
ta lurrari ezarrita iztea, askoz, zabalago ta bikaiñagoa
da.

Marino, ekin ta jarrai ta aurrerantzian be almen
eder orren bitartez ízan Euskalerraren gizon eta ar-
gia.

SOLOZABAL'dar PAULIN'ek

ETXE ZAARRA

Orma loka akust, ia jausía,
etxeko zaar, aizeen kabia,
joanaren aterpe goibela
t'urtez beteko arrí zimela.

Oroí galduen obi lur joa,
asunez beteko abaoa.
Basoaren, antxiña, zuzua;
gaur sasítzan erroa galdua.

Etarteko aga irotuan
kabi bat dok perra erdoilduan,
uts eta suila, kune bakoa
ta, otzarren, negarrari joa.

Jo au betíko epelík ezak
ta tristura astunen euri lasak
erioletu au golpe erailez
izarrerri negar eraginez.

Aín akust gainbera ta itsusí!
Elaíek ondo joek ikusi
ire gaurko negute aroa
ba litekela betirakoa.

Mosuka daukok untza lízuna
arrí zaarren maítale kutuna
ta maspar zaarren puntan igar
ainbat ezpanen poz ta irribar.

Sutondoko mukur ondakiña
aspaldí dok auts arre egiña,
baita ere aspaldi itzaliak
ogí t ardaurik bako argiak.

Aspaldí deuat entzuten miník
intziri larrietan bilbilik
eskon gelako sutege illa
eta maíte kantuen ixilla.

Aíze golpez baítok aldegiña
mosu beroen lurrun ariña
ta alper-alperrik bíllatuko ik
garbítuko auan maírasunik.

Mendiko etxetxo zaar aaztua.
erriaren aríma galdua.
Ba oa adu txar guztien anai
erio-arra ezinik garai.

Mendíko etxetxo zaar aaztua
arrien kontrako pekatua.
Ixil bakarrak jotzen au gogor
eure aterpe galduen zigor.

Arri moltzo arrakalatua,
basoaren zauri gogortua.
Eure illundurekin mendia
zikintzen dokan orban andía.

Iñoiz ba íntzan i arri zaarra.
ogi gozonen mai bakarra.
Gaur, nora ezinean ta bildur,
mutu-mutu ta begi labur.

Ñeke astun bat dok orregaitik
eure arrakaletan zintzilik.
Zeruaren zama nabarmena
ta egun argiegiarena.

Orregaitik ago gauaren zaí.
Bake ixil betezko loanai,
mendiko etxetxo zaar aaztua,
basoaren zauri gogortua.

DOANA DOALA

Iru-lau golpez astinduko dot
nire lepoko atzo arroa
eta sute gorira jaurtíko
urte joanon arrabarroa.

Poz-pozik zirikatuko garra
—zenbat adar ustel t'orri xirpil-
beti-betiko daitezen erre
ainbat samin bizi ta mosu il.

Eta nire arima zaarrera
pozak —bete-beteko aíze-bal-
joko, argiz betez baster oro,
ate ta leioak zabal-zabal.

Eta betiko aldenduko dot
nere azurron ordu astuna

t'arnas barriekin kokoratu
aizerik Garbienen lurruna.

T'eguzki beropean ibilko,
esku erne, urre printzen billa
argi golpez eta ukabilka
astintzen ílluen izkanbilla

Urte zaarrerri uko egingo
ta begi okerreri entzungor.
Amets zuririk ederrenaren
gorakoari eutsiko gogor.

Ta egun barrien bílla joko,
lengorik ezer dandana aaztuta,
masparperik masparpe pozarren
zuku gorriekin mozkortuta.

Gaurko mosuak ditut nik guren
joandakorik ez baitot eder,
negu zitalek astin bait naue
ez dakit zenbat millaka bíder.

Gogor jarraituko argi billa
izango dala dakidalako
tarterik tarte birrintxorik
nere unetxoen pozerako.

T'ametseri gogor atxikiko,
arri zuriz tellepe bat egin
nire zoroaldi zoroetan
ekaitzak barriri jo ez nadin

GURARIAK

Ñík gaur nai neuke ízan aize firifria
soloko olatuetan udalengo eresi.
Argi eze bat bakar nire alaien esi
legunkiro laztantzen zabuka dan garia.

Ñík gaur nai neuke ekí garbí goría
goizbarriak zauritzen urre utsezko gezí
maastíetan daíten —odol mozkorren ezti-
update oriaren gun gorri ta joria.

Ulertezina baitot gure aize naspilla,
gure zerua astintzen ezpaten izkanbilla,
gurenda aintzaren orde milla larrosa moztu.

Ulertezina baitot lañopeko argia.
Gure errin mindu onen irribar ebakia.
Su gorrein arteko ainbat errauts izoztu.

A. BIDAGUREÑ A.

MONTIANO'tar JOSE ANTONIO



Liburu txiki bat

Neure eskuetan daukat liburu txiki baiña oso baliotsua eta nik oso maitatua, nire euskal itzaldi ta lan-
txoak gertetako asko lagundu daustalako.

Zein dan liburutxu ori?

"Diccionario de bolsillo IKAS, euskera-castellano-euskera". Egilleak: Jose Antonio de Montiano ta Jose Ramón de Urquijo. Aolkuak: Karmelo de Etxenagusía ta Xabier Peña.

Bere berreun eta ogetamazortzi orrietan amar milla euskal berba dítu.

Lenengo orrian, bere izki oso argi ta pertsonalaz, auxe dago idatzita: "Nere adiskide Tasio'ri biótz-biótzez, 1972'ko epaillaren 26'gn. J. de Montiano".

Egun onetan Jose Antonio zerura joan jaku infarto bategaz. Emen Begoña'ko illobian, gure Andra Maria'ren ondoan, bere gorpuak azken eguneko biztuerare itxaroten dau.

Maitasun bi

Bere biotzean maitasun aundi bi gorde ebazan beti: Krísto'ren Eleízearentzat eta Euskalerriko izkuntzarentzat maitasun gartsua.

Ba-dira berrogei ta amar urte, Montiano ezagutu nebala, ta orduan Bizkai'ko Gaztedi Katolikuaren alde lan eta lan egiten eban Karmen'go Eleizan eta Víuda de Epalza kalean, Katoliku Ekintzaren Idazkaritzan.

Langille zal, gogotsu ta aspergaitza zan Jose Antonio. Zenbat gaztetxu Jose Antonio'k moldatuak, kristautasun sendo batean, gaur gizon oso kristauak dirala!

Eta gero euskerearen alde bere lanak... Beste lagun batzukaz "Euskerazaleak" sortu eban eta alkarte orretan lan asko eta luzaroan egin eban, Euskerazaleak'en eragille edo motorra benetan izan zan.

Eleizarako euskal abestiak batu eta zabaldua Bizkai guztian, Xabier Peña'ren ikasbide txalogarria ikasgai labur eta errezetan jarriaz eta sakeleko liburutxu biurtuaz, eta abar eta abar...

"Ikas"

Baiña bere lan guztien artean íztegi au "ikas", pitxi eder bat da benetan...

Eskerrik asko lagun maitea, zor aundía daukagu zugaz, zure kristau testigantza ta zure euskerazaletasun amorratuagaitik. Euskaldun bakoitxak, euskaldun barriak, zu ta ni lez, eta batez bere, euskaldun zar bakoitxak euskeraren alde, zeu lez, lan egin izan baleu, gure euskera maitiaren etorkizuna, argitsu ta alaitsuago izango zan. Goian bego, Jose Antonio.

Begoña'n 1991'ko otsaillaren 26'an
Anastasio Olabarria

DEITURAK ZELAN LEGEZTATU EUSKAL GRAFIAN

Asko dira asarretzen diranak euren izen-abizenak erderari dagokion grafian (idazteko eran) agertzen dautsezalako.

Beste batzuk, aldaketa nai edo ondo ikusiarren, ez dabe ale-
giniñ egin nai izaten, gerorako akatsen bat euki leikien arduraz.

Esaterako, testamentu eta abarretan, eragozpenak euki
leikezen bildur edo aitzakiz.

Egin ete leike ezer, eragozpen barik, aitzaki barik, gero-
rako buruauste barik, esaterako AMUCHASTEGUI, edo
GOICOECHEA, edo OTXOTEREÑA, AMUTXASTEGI,
GOIKOETXEA ta OTXOTEREÑA, eta orre in antzerako
beste edozein aldatu eta euskal kutsuz agertzeko?

Ba ete dago errazoirik aldaketa ori legez egiteko?

Errazoiak

1978 urteko España'ko Konstituziñoiak, bere 3 atalburu
eta 2 ataltxoan diño Estatuko lurralde guztietako izkuntza
guztiak ofizialak izango dirala euri dagozkien errialdetan.

Orrez gaiñera ba diño au be: España'ko izkuntzen ez-
bardintasuna aberastasun bat dala, kultur ondarea dalako.

Gure Autonomi Estatutoan

Legezko dan 1979 urteko Estatutoan, 6 atalburuko 1 eta
2 ataltxoetan, garbi esaten da, Euskerak, Euskalerriko iz-
kuntza lez, gaztelaniagaz batera izkuntza ofizial mailla
izango daua, eta danok dogula izkuntza biak ezagutu eta
erabilteko eskubidea.

Geiago, Autonomi-Komunidadeko erakundeak, Eus-
kalerriko izkuntz egoera kontuan eukita, izkuntz biak era-
biltea bermatuko dabela, ortarako neurriak artu eta ofizial-
tasuna eratu ta indartuaz.

Agerbide orreitan garbi ikusten da, izkuntzak berak di-
tun grafia jator eta legeak erabilteko eskubide osoa daua,
eta ori aintzat ez artzea, beste erakundeentzat, legezko dan
egoera bat ukatzea litzakela, Konstituziño berberaren ata-
lak ezetziaz.

Zer egin bear dan

Gauzak berera ekarri eta ezaupide ori lortzeko, lenengo
euskaltzaindiko agiri bat atara bear da, bakoitzak daukan
abizenari euskeraz zelako euskal grafia jagokon adierazi
eta ziurtatzen.

Eta gero?

Eskabide bat egin Madrid'eko Justizi-Ministraritzako
Erri-liburuan (Erregistro zibillen) sartu bear dan lez ida-
tzita geratu dedin.

Ori ukatu eziña da, erakunde orretako 4 atalean esaten
dalako, Ministeritza orrek baimendu leikela izen eta abizen
aldaketa, ortarako auzi-agiri bat egin ondoren.

Bein orretara eldu ezker, bete bearreko baldintzak
oneik dira:

Deitura, zuzentzeko eskatzen dan eran, ez dala bakoit-
tzak berez sortua edo asmatua jakin eragin. Eta orretarako,
eskatzen dauanak eta bere familikoak grafia ori erabilten
dabela erakutsi, erroltze orrietako fotokopiak agertu eta
eurretan ikusi eragiñaz.

Agertu bearreko agiriak

Gaur-gaurkoz eskatzen diran agiriak oneik dira:

1. Jaiotzako agiria.
2. Ezkontzako ziurtagiria.
3. Seme-alaben jaiotz agiria.
4. Euskaltzaindiaren ziurtagarria.
5. Udaleko idazkariaren ziurtagarria, udalean errol-
tzeari buruz, eta deiturak euskal grafiaz idatzita erabilten
dirala esaten.
6. Udal Erroltzako orriaren fotokopia.
7. Lekuko edo testigu bi.
8. Euskal grafiaz deitura orreik agertzen diran beste
edozelako agiri.
9. D.Ñ.I.

Betiko esan-mesanak

Ñorbaitek esan leike "papeleo" larregi dala ori. Ala
izanda da be, paper talde ori erraz lortzen dana da.

Ortik kanpora, bakarrekoak onetan diarduen artean, ez
da bidegabekeria pentsatzea Madrid'en ardura gitxi artuko
dabela gauzak erraztuten. Baiña eskabide ugari egotean,
eskabideak sarri-sarri egiteak, indar berezi bat emango
leuke, Madrid'ek gai onetan jokera bat artzeko, eta onetan
arduratzea danontzat mesedegarri izan leikela uste dogu.

Laburtuaz, amaitzeko: Egin al da, ongarrí da egitea, be-
raz egin bedi.

AÑDER URRUTIA

ZUZENDARITZAREN OARRA: 4 ZEÑBAKIAÑ DAÑ
"EUSKALTZAINDIAREN ZIURTAGARRIA", IZAN
LEITEKE "EUSKERAZAINTZA"rena be, ERAKUNDE
ONEK BE "OFIZIAL" TASUÑ BARDINA DAUKA-
LAKO.

ASKATASUNAREN SAGARRA

Pentsatu egizu mendian zabiltzazala, eta zelai loretsu baten erdian, sagar arbola eder bat ikusten dozula eta arbola orren adar batetik, sekula ikusi ez dozun sagar zoragarri bat dindilizka.

ikusiaz batera, erabagi bat artzen dozu, sagar zoragarri ori zuretzat izan bear dala. Baiña zeu eta sagar arbola orren bittartian, oztopo aundi bat dago. i Orma bat!, iru metro goruzko eta metro bat lodierako orma gogor bat, eta bere zabalerari ez jako azkenik ikusten.

i,Zer egingo zenduke sagar ori zureganatzeko?

Norbaitek erantzungo leuke: Al danik ariñen sagarra neureganandu eta jan.

Eta nik erantzun: Bai, ondo dago, baña... ,zelan?

Biderik motzena sagar-arbolarengana zuzen joatea da, baña beti ormarekin topo egingo dozu, eta prisaka joaten bazara, korrika eta abar, ainbat eta golpe gogorrago ormarekin artuko dozu. Orma ori zeure burua baño gogorragoa dan lez, ba, orma ori apurtu baño lenago zeure burua apurtuta lurrean geratuko zara laguntza eske.

Nik ostera, beste ekintza batzuk antolatuko neukez, sagar zoragarri ori neureganatzeko.

Biderik motzena alde batera itziko neuke, eta beti neure elburua zein dan aztu barik, naita bidea luzeagoa izan, eta momentuz sagar arbolatik urrundu, beste bide bat artuko neuke. Orma orren alde baterantz edo besterantz joango nintzake, atea edo leio baten billa sagar arbola dagoen zelaira pasatzeko.

Leioa aurkittuko ba'neu, naita txikia izan neure gorputzaren lodiera bertatik pasatzeko, ba, leio azpian jan barik geratuko nintzake zulo txiki orretatik pasatzeko aña neure gorputza argaldu arte. Naiz eta lenengo gosea pasa, otza, nekea eta abar, azkenean leiotik pasatuko nintzake, eta neure elburua lortuko neuke. ASKATASUNEZKO SAGARRA neureganatuko neuke, nai ta bidea oso luzea eta neketsua izan.

Atea aurkittuko ba'neu, eta ate ori itxita egongo

ba'litz, atearen giltza nork daukan galdetuko neuke, nor dan jakiñaz batera, bereganatuko nintzake eta alkar izketa eta konponketaren bidez, ta ez gogorkeriz edo indarkeriz, giltzaren orde berak eskatzen dautena aztertuko neuke, eta konponketa on bategaz, giltza neureganatuko neuke, atea zabaldu, zelaira pasa eta ASKATASUNEZKO SAGARRA neureganatuko neuke. Au egiteko denpora asko bearuko neuke, baña neure elburua lortuko neuke, iñori negarrik eragin barik.

Baña ez aterik, ez leiorik ez baneuke aurkittuko, eskillara baten billa asiko nintzake orma ori gaintzako. Orretako eskillararen jaubearekin izketan asiko nintzake, zerbaiten orde bere eskillara neureganatzeko, eta ez baleustake lagako, neuk egingo neuke eskillara bat. Denpora bearuko neuke, baña neure elburua beti gogoan eukita, azken baten, ASKATASUNEZKO SAGAR zoragarri ori neureganatuko neuke. Naiz eta norbaitek bittartean "traidorea" naizela, edo neure lurra saldu egin dodala esan.

Au esaten dabenak biderik motzena artu eta orman kontra joan bein eta barrero eta bere burua apurtuta lurrean geldituta gero, neure laguntza eske etorten dira euren zauriak osatzeko.

Norbaitek esango leuke: gauza orreik lelokeri utsak dira, badago beste bide motz bat orma ori gaintzako, eztanda bategaz orma apurtu eta zelaira pasatuko nintzake.

Nik erantzungo neuke: orma pasatuko zenduke bai, baña ez zenduke ez zelairik, ez sagar arbolarik ez AZKATASUNEZKO SAGAR zoragarririk aurkittuko. Eztandak dana dez eginda utziko leukelako, negarra eta malkoa baño besterik ez zenduke aurkittuko.

Askatasuna lortzeko, biderik motzena ez da beti izaten biderik onena.

Ondarroa 1991'ko Urtarrillak 26
Urrutxe

APALAI AGERTZEN JAKE JAUNGOIKOA

Siñisbakoak edo bolterkeriz ikututako siñisdunak, Ama Birjiña beti ume ezjakiñai agertzen jakela nabaritzen dabe. Zergaitik —itaunduten dabe onelako agerpenak leku baztertuetan, eta ez saiolantegietan, jazoten dira?

Onetaz pentsatuten neban gabon azkenetan artzaiñei erakusmenaren ebanjelioa entzutean.

Jaungoikoa askotariko eraz emoten jaku ezagutera. Artzaiñak, ezjakiñak ziran ezkerro, ezin eben aurkitu liburu santuetan. Orregaitik Jaunak bialdu eutsen aingerua. Auxe zan biderik egokiena, gure ustez beintzat. Magoak, ostera, zerua arakatuaz ikusi eben izarra.

Jaunaren ekintzak beti erakusten dau al dan miraririk txikiena. Orregaitik ez eutsen bialdu aingerurik magoei ezta bere Israelgo jakitunei. Areek izarrak eta onek liburu santuaz Salbatzallea jayo zala ezagutu al eben. Bialdu eutsen artzaiñei, jakiteko beste modurik ez eukien eta.

Jakitun danak, bere adimenez, lanaz eta azterketak eskuraturik, ezagutze asko daukiez. Euren saiolantegietan euren tresnagaz (txiki-ikuskíñak eta abar) izadiko legeak aurkitu al dabez. Eta eurek arkíturiko ízadiko legeen bidez Jaungoiko egillearen aunditasuna ezagutu al dabe. Ebanjelioko magoak legez, ez dabe mirarizko agerpenik bear. Eleizaren bidez ezaguturiko Jainkozko agerpena onartzen dabe batzuk. Beste batzuk ostera, bere arrazoiak berenganaturik baño ez dagona egirik uste dabe. Onen artean positibistak areago joaten dira: ikusí, neurtu eta zenbatu al diran gauzak, dira egiaren iturburu bakarrak.

Orrelako jendeei Jaunak ez dautse bialduten aingerurik. Zertarako? Ba iñola ez leukie onartuko. Arrazoi onetatik ulertuten dogu ia zergaitik Ama Birjiña beti solo baztertuetan artzaiñai agertzen jaken, eta ez saiolantegietan jakitunai.

Onelaxe zan gure fedearen asieretan. Jaungoikoak berba egin eutson Abraamei, ez Egipto nai Babiloniako jakitunei.

Jainkozko egiak artzeko apaltasuna bear dogu. Aren bidez gorengo egietaraño elduko gara. Agustin eta Akinoko Tomas Doneak, filosoforik jakintsuenak nai Sienako Katalin, Jusesen Teresa, Jesus Umearen Teresa Doneak eta Anjeles Sorazu, danak ikaspen bako emakumeak, eldu ziran lez. Jainkozko egiak dantontzat dira ta. Apaltasun barik, nai ta ildakoen bat berbiztu, ez dogu siñistuko.

Nere buruan sendo geratu yatan bein ikusiríko pelikula bat. Bere izenpurua "Aita Jeremiasen miraria". Bruce Marsallen eleberriaren gañean egiña zan. Auxe zan gaia.

Alemania'ko uri andi bateko eleíz baten aurrean kabaret bat egoan. Egunero eginkizun eskandalotsu ta lizunak jazotzen ziran. Elizako abadeak atx egiten eben. Abadeakin beneditar monje bat egoan: aita Jeremias. Batbatean onek erabagi eban: "au neuk konponduko dot".

Otoitz labur eta sakona eginda gero, kabaret egoan tokia, utsik agiri zan. Ara miraria jazon! Jeremias'ek zirautsen abade arrituai: "au otoitzaren bidez errazerraza da. Ez al dogu egiten egun guztietan beste mirari bat aundiagorik? Ba aldaretara Jauna bera ekarten dogu".

Uri ta Alemania osotik zabalduten da albistea. Gero, kabaret osoa, ausí barik, Iparitxasoko ugarte batean agiri da, jakitun dagoz. Miraria argi-argia da. Danak etxe zerrendan utsana ta kabareten argazkiak —bere egonleku berrian— ikusi al dabez. Baña bitariko eraz artuten dabe jazorikoa. Síñismedunak kabaret egoan lekura doaz Jauna goralutera. Besteak len lez geldituten dira. Iñor ez da Jaunagana biurtuten. Ostantzean alako Iparitxasoko ugartean beste kabaret bat, askoz ta askoz andiagooa, eraikiten dabe. An farra lizun andiak antolatuten dabez.

Orrelako jendeak ez leukez onartuko Ama Birjiñaren agerpenak. Orregaitik umiai eta ez jakiñai agirtzen jake.

IBAÑEZ KARLOS

"AUTODETERMINAZIOA" DALA-TA

Gure ZER aldizkarian, 138 n. zenbakian, 1990 urte onetako zezeillakoan, Latiegi'tar Bixente'k idatzitakoaren da oar batzuk artzeko aukerea izan dodana.

Latiegi jauna oítuta dago egí biribíllak esatera eta gure erríko kondaíran zear jazoritakoen azalpenak emotera, beraz, atsegingarrí ízaten díra bere idazlanak.

Oraingoan, "AUTODETERMINAZIOA" dalako bere lanean, euskaldunentzat eta danentzat, garrantzi aundiko gaia aitatzen dau eta ba dirudi olako gaíari buruz, ezjakin aundientzat bere, naíko argi eta garbi azaltzen dala.

Politikaren arloan, garrantzitsuena autodeterminazioaren eskubídea dogula díño eta ezín dautsogula uko egín, ez kanpotík ez beste ezer edo íñorgandik gizaikiari jatorkon eskubíde orri; alderantziz eskubíde au zintzo gordetzera bearturík gagozela, zuzenbidearen aurka "oben astuna" egítea ízango lítzakela bestela.

Gertatzen dana da baiña, nire ustez, jentea komunika-bideetan dabíllen ainbeste barri eta naasteakaz arazopeturík, zintzotasunez jokatu arren, onelakoetan ezín da oartu be, onetaz, jakíña, ez da íñor ondo azaltzen-eta. Zelan ba, erritarrek, bereraketa edo autodeterminazioaren mamiña edo sustraia norberagandu eta ikasi edo jakin?

Ba dirudí, komunika-bídeen eskuetan dagola, azken baten auzia eta Latiegi jaunak díñoanez, Euzkadí'rentzat arriskugarría da bere erríko jentea gai onetaz era zuzenean ulertzeko prest ez egotea.

OITURATAZ

ZER aldizkarian, 142 n. zenbakíari (bagíllakoa), Olazar tar Martín'en idazlana irakurrí dot. Izenburutzat

"Euskaldunen Egun Aundiak". Bai garrantzi aundiko lana!

Sarrítan pentsatu dogu Euskalerríko egoerea asko aldatu daia, oítura-maíllan batezbe eta bizí-modu barri baten ítxuran. Onetaz baiña, ez da nire ustez guztiz onerako aldatu, au da, aurrerapenak eta bizí ízateko era edo modu obea ízateko baleiteke, baiña euskal oituretan gure erríaren nortasun eta ízateak zer esaník asko izan bear leukela dírudi.

Azaletík begiratuz, or dagoz dantza-talde apaiñak, lengo eta ez ain antxiñako domeka eta jaíetako jantzal-diak, ezelako apaín berízirik barík egiten zíran ordez, oraingo jaiaik orniduten etorrí diranak.

Jaíetako Meza Ñagusíaren ostean egíten ziran erríko plazan bertan. Orduan, Meza Ñagusíaren abeslariak (erríko mutíllak askotan), abadea, alkatea eta erri guztía, jakíña, aurrean egoala, bertako neskatíllak (eta jaíetarako etorríak) ataraten ebezan aurreakura, eta kate luze bat egíñik, aurreku ostean jantzan egíten eben, txistu eta tanbolíñaren otsak lau aíxetara zabaldurík.

Egunok joan ziran; oraín dantza-talde apaín eta doto-re ízaten da olakoetan aurkezten dana. Eta pozík Meza Ñagusia euskeraz esaten danean!

Errí askotako abadeak, eurak bere, leen dotriñea euskeraz emoten zan leku ber-berean orain erderaz emoten dabe. Euskaldun abadeak nekeztu egín díralako edo, eleizetan euskeraz irakasten zana, arriskutan ete dago?

Leen esandakoarí eutsíz, bere lana pozgarría izan jaku, batez be garí-jote, arto zurítze eta beste abar asko azaltzean, eta adibídez, matzarena, monjorrek eta totoa ezagutzen ez gendualako, pozago barriz.

LARROÑDO

OARRA

Arpidedun guztíaí dei egiten dautsegu. Bialdu dagíela urteko arpídetza, 1.200 pezeta. Bialtzeko erarík onena txeketa dala uste dogu. Artu zuen kontu idegíko txarteltegia, ipiñi an EUSKERAZALEAK ízena, sartu karta-azal baten eta bialdu Colon de Larreategi 14.2. ^a eskoia, 48001 Bilbao zuzenbídera. Esaten dogun au Bilbo'tík kanpoan bizí diranentzat da geien bat.

Eskerrik asko ori egin dozuenoí. Besteok egin ori ainbat lasturren gure lanari poza gaiñeratzeko.

EUSKERAZALEAK

P.D.: Lengo illean 1.000 pezeta dala esan zan oker-bidez, baiña 1.200 pezeta da.

LEN ORAIN ETA BETI

Joan den asteko idazlanaren jarraipena duzu gaurko au, irakurle. Esan ganuen, len, orain, eta beti, Iruña dela gure Uri Nagusiaren izen bakarra. Izan ere, ezin izango duzu euskaldunen ezpainetatik sekulan "Iruña"rik entzun, ezta izen oker ori gure toponimian edo gure dokumentu idatzietan aurkitu. IRUÑA beti.

Eta Nāparroa'ko eta Gipuzkoa'ko Goierri'n eta baita Bizkai'ko puska aundi batean ere, gure fonetikaren araura, "IRUÑE". Ori orde fonetika utsa besterik ez dela badakigu. Era berean esan oi dire "zurie", "mendie", "ardie"... , bana itz oien nominatibu-era, ots, itz oien izena "zuria" "mendia", "ardia" direla badakigu.

Berdin, "Iruña"ri buruz; gure erriak "IRUÑE" esango du, baña fonetika-kontuak aparte, naiz jende ikasia izn ez, barren euskalsenaz badaki itz orren nominatibu-era, edo berdin dena, itz orren izena "Iruña" dela. Orregatik, "iruñarra" esango diote beti Iruñe'ko gizakume bati.

Iruna'koek, bere buruari, "iruñeseme" esan izan diote. Iñoiz ez "iruñeseme", naiz izen au izketarako errezagoa izan, eta, jakiña, askoz ere gutxiago esan izan diote "iruñeseme".

Bada Araba'n ere "Iruña" bat. Itzal aundiko gaztelua erromatekoan. "Beleia" izen-ipiñi zioten erromatarrek. Baiñan "Iruña" ez zaio sekulan esan. "Iruña" beti. Orregatik, "Iruña" baldar ori, nazkagarri zaku jaiotzetik euskaldunak garanoi.

Toki-izenetan, eta baita abizenetan ere "iruña" eta "iruñe" agertzen zaizkigu; ez orde sekulan "iruña". "Iruña" bera, abizena ere bada, Araba'n Nāparroa'n eta Gipuzkoa'n. "Iruña" zuan abizen, 1318'tik-1521'ra Elkano'rekin munduari lenengo bira eman zion mariñel batek.

"Iruñaga", Bedaio'ko auzo baten izena dugu. Eta Amezketan eta Tolosa'n ere badira izen ortako bi base-ri.

Jarrai nezake, Nāparroa, Gipuzkoa eta Araba'tik jasotako izn geiago eta geiago adigarritzat aipatuz. Ez da bearririk, "Iruña" bat bakarrik ez bait zaku agertuko.

Asarre dugu Amatiño Jaurlaritzak ontan eskua sartu duelako. Ez ote du Nāparroa'ko Jaurlaritzak bere Uri Nagusiaren izena zer izan bear dun erabakitze eskubiderik? Euskaltzaindiak "Iruña" artu omen zuen ontzat! Ta zer? Zerbait izetekotan, ori bera izango litzeke "Iruña" gaitzesteko arrazoi naikoa.

Lekuona'tar Imanol lendakaritzatik ain era lotsagarrian bota zuten gero, asko ta aundiak bait dire Euskaltzaindiak egindako okerkeri mardulak.

Gañera, Nāparroa'ko Jaurlaritza ez dago Euskaltzaindiaren serbitzura; bere erriaren serbitzura dago,

eta Nāparroa'ko Jaurlaritzak jakin du bere erriak bere Uri Nagusiari, atzo, gaur eta beti, Iruña deitu diola; beñere ez "Iruña".

Ederki egin du berak oraingo ontan Nāparroa'ko Jaurlaritzak. Eta, Amatiño el-batuazaleak arazo ontara sartu nai digun Euskaltzaindiari-buruz, zillegi bezaigu beste zerbait esatea:

Nāparroa'ko Jaurlaritzak zerbait gaizki egiten ba'du, euskaldunen borondatea ostikatuz euskera ondatzen ari den Euskaltzaindi zori-gaiztozko orri bakarrik orrenbeste milloika ta milloika diru ematea dela. Badira Euskalerrian diru ori jasotzeko eskubide eta arrazoi geiago duten erakundeak, egiazko euskeraren alde dagien lanari so egiten ba'diogu: Euskerazaintza Erri-Akademia adibidez, eta Euskerazaleak.

Erakunde auek Nāparroa'ko jaurlaritzaren laguntzarik gabe gelditzea, ez al da zuzentasun ororen aurkako gauza? Orrela beintzat iruditzen zaku guri.

Nāparroa'ko Uri Nagusiaren izenari-buruzko erabakia Iruña'ko Udalak artu izatea nai zuen Amatiño'k.

Zergatik? Iruña'ko Udalean atxebetarrak sarturik daudelarik, auek denak, oiuka, el-batuazaleek sortutako "Iruña"ren alde jeikiko zirelako.

Zergatik? Atxebetarren elburua, beren nagusi den ETA'ren esanera, Euskalerrian al den iskamillik geiena sortuz, "iraultzarako giroa prestatzea" delako. Orixe bera da, sortu zutenen asmo makurrean, elbatua beraren izeteko arrazoi ere: iskamilla sortzea: "kontradikzioak" sortzea, beraien izkeraz.

"Razón lingüística" izen omen zen Euskaltzaindiak "Iruña" onartzeko erabilli zuen arrazoi, eta "razón política" izen omen da "Iruña" ontzat artzearen alde Nāparroa'ko Jaurlaritzak erabilli duena.

Ñik ez dakit Jaurlaritzak zer arrazoi erabilli duen, baiñan bai, badakit, bere arrazoi ori oraingoan "razón lingüística" orekin bat egiñik datorrela. Izkuntzitiaren aldetiko arrazoi guztiak, denak!, "Iruña"ren aurka eta "Iruña"ren alde bait daude.


Baña Amatiño'k dionez, "Iruña"ren alde jarraitzeko "razón lingüística" oro berena dutela uste omen dute Euskaltzaindikoek. Mesede koxkorra egiten die ori esanez Amatiño'k.

Uste ori oso-osoa ustela delako, tontotzat uzten bait ditu.

Kontuz! Ñik ez diet euskaltzaiñe "tonto" deitu. Ñik, Amatiño'ren itzek beren baitan izkutaturik daramakiten ondorio beltz ori, argira atera besterik ez dut egin.

Latiegi'tar Bixente
"Diario de Navarra"n argitaratua (1991-otsailak, 11)

IZKU=VTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-ízanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoag^{az}
bere erriko jenteari
laguntza-gaⁱ osoak
eskintzen dautsozana.
Betí dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa